



■ LURRALDEBUS

## Autobus gorrian aldaketak, astelehenetik

Hernani eta Astigarragako erabiltzaileentzat aldaketak egingo ditu HASA enpresak A1, A2 eta A3 autobus lineatan.

HERNANI, Astigarraga eta Donostia lotzen dituzte HASA enpresak dituen A1, A2 eta A3 lineek; autobus gorria bezala ezagunak. Lurraldebusek jakinarazi duenez, astelehenetik aurrera aldaketak izango dira. A2 linean errefortzuak jarriko dira Martidegitik: 17 joan-etorri gehiago, 07:00-10:00, 13:30-15:00 eta 17:30-20:00 bitartean; bestalde, Donostiara sartzean, aldaketa izango da ibilbidean. A1 lineak berriz, geltoki berri bat izango du Hernanin, Zikuñagan. Eta A3 linea, kendu egingo dute. /10



## Kaldereroekin, badatoz Inauteriak!

BERTAN dira Inauteriak, Kaldereroek aurrreratu bezala. Atzo atera zen Langile ikastolako konpartsa Hernanin, eta

gaur gauean, Elur Txori elkarteok hartuko dute txanda. Eta bihar, Iñude eta Artzaian txanda izango da, Inauteriei ongi

etorria egiteko. Aranon, berriz, gaur bertan ospatuko dituzte Inauteriak, Zomorroen puxka biltzearekin hasita. /3-15

■ HERNANI

### Alkatea Bruselan, Udaleko programen berri ematen

Bruselan izan da egunotan, Luis Intxauspe Hernaniko alkatea, Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko Europako Forumean. /3

### Errugbi harrobia, harribitxia

Inoiz baino gazte gehiago daude orain, Hernani Errugbi Elkartearen harrobiko taldeetan; klubak urteetan zehar egin duen lanaren ondorio. /4-5

■ ASTIGARRAGA

### Sagardoetxea, Fiturren

Madrilgo Fiturren izan da Joxe Mari Alberro, Sagardoetxeako zuzendaria, Euskadiko Museo Enogastronomikoen Sarearen aurkezpenean parte hartuz. /12

■ GOIZUETA

### Gasolindegia, Udalaren iritziz «oso positiboa»

Goizuetan gasolindegia bat irekitzeko proiektua aurkeztu du herritar talde batek, eta bere babesa erakutsi dio Udalak, ez duelako zalantzarik «proiektu interesgarria» dela. /14

**GAUR KRONIKAN**

**Hernani /2-7**

Gidabaimena euskaraz, arrauna, laburrak, eskelak...

**Astigarraga /10-13**

Udala, Jasota Bezala, futbola, txirindularitza, laburrak...

**Goizueta /14-15**

Udala, futbitoia, laburrak...

**Arano /14-15**

**Ereñotzu /14-15**

<b>BANGKOK</b> Otsaila eta Martxoan Madrildik hegaldia + 7 gau 4* Hotelean gosaria + bitxitak barne	<b>1015<sup>000</sup> €</b>
<b>FUERTEVENTURA</b> Otsailaren 27an Bilbotik hegaldia + 7 gau apartamentuan gosaria barne	<b>365<sup>000</sup> €</b>
<b>CARIBETIK ITSAS BIDAIA</b> Martxoaren 1, 8, 15 eta 22an Madrildik hegaldia + 2 gau La Habana + 5 gauko itsas bidaiaren pentso osoan	<b>999<sup>000</sup> €</b>
<b>PRAGA</b> Martxoaren 24an Bilbotik hegaldia + 4 gau 4* Hotelean gosaria + bitxitak barne	<b>599<sup>000</sup> €</b>
<b>LANDAS</b> Martxoaren 23an 5 gau 2/4 etxean ... <b>243 €</b> 4/5 etxean ..... <b>260 €</b> 6/8 etxean ..... <b>295 €</b>	
<b>LONDRES</b> Martxoaren 24an Bilbotik hegaldia + 4 gau 3* Hotelean gosaria barne	<b>619<sup>000</sup> €</b>
<b>RIGA-TALLIN</b> Martxoaren 24an Bilbotik hegaldia + 4 gau 3 eta 4* Hotelean gosaria + bitxitak barne	<b>619<sup>000</sup> €</b>
<b>VENECIA</b> Martxoaren 24an Gasteluzetik hegaldia + 4 gau 4* Hotelean pentso erdian + bitxitak	<b>729<sup>000</sup> €</b>

<b>SEVILLA "Feria de Abril"</b> Apirilaren 13an Donostiatik autobusa + 3 gau 3* hotelean gosaria + bitxitak barne	<b>345<sup>000</sup> €</b>
<b>LISBOA</b> Apirilaren 7an Bilbotik hegaldia + 3 gau 4* Hotelean gosaria barne	<b>328<sup>000</sup> €</b>
<b>MENORCA</b> Ekainaren 1ean Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean pentso erdian	<b>372<sup>000</sup> €</b>
<b>CERDEÑA</b> Ekainaren 25ean Barzelonatik irteera fornyan (zuloa barne) + 7 gau apartamentuan, 2 hokur + 2 urte	<b>1080<sup>000</sup> €</b>

Aukera gehiago gure bulegoan eta [www.hernanibidaiak.es](http://www.hernanibidaiak.es) [www.bidabilia.com](http://www.bidabilia.com)

**HERNANI BIDAIAK**  
Urbeta 6  
943 33 00 49

JARRAITU:

## ■ GIDABAIMENA EUSKARAZ



Lasarte-Oriako udaletxean egin zuten zozketa, ostegunean.

## Hiru hernaniarrek saria, euskeraz 'gidatzeagatik'

Enara Agirrezabal, Mirella Becerra eta Jon Zubillaga izan dira sarituak, 'Gidabaimena euskaraz' egitasmoaren barruan.

URTERO bezala, Buruntzaldeko Udalek saritu nahi izan dituzte, gidabaimenaren atal teorikoa euskeraz egin duten herritarrek. Eta horretarako, 400 euroko 11 sari zozketatu dituzte, guztien artean; horietako hiru sari, hernaniarren artean.

Horrela, herriko sarituak izan dira Enara Agirrezabal (Lagunak autoeskolan atera zuen gidabaimena), Mirella Becerra (Otamendi) eta Jon Zubillaga (Hernani). Datoren asteen zehar jasoko

dute saria, Hernanin egingo den ekitaldian.

### «Uste duguna baino inportanteagoak dira horrelako egitasmoak»

Zozketaren ekitaldian, Koro Etxeberria Hernaniko euskera zinegotziak azaldu zuen, «uste duguna baino inportanteagoak» direla horrelako egitasmoak: «gazteek ikusiko dute, horrelako gauzak ere egin daitezkeela euskeraz, eta gainera, aberastu egiten du euskeraz egiteak.

Baina noski, horretarako ezinbestekoa da autoeskolen inplikazioa. Zorionak eta eskerrik asko guztiei».

Buruntzaldeko 10 autoeskolak hartzen dute parte, tartean Hernaniko Lagunak, Otamendi eta Hernani.

2015ean, behera egin du atal teorikoa euskeraz egin dutenen kopuruak. 113 izan dira, iaz baino 27 gutxiago.

Edozein kasutan, egitasmoarekin jarraituko dute, eta maiatzean hasiko da 2016ko kanpaina. ■

## 🔗 JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

### D2016: haserre gaudel!

Haserre dagoela dio Hansel Cerezak. Berak prestatutako Donostia 2016ko irekiera ikuskizuna ez omen genuen ulertu. Betikoa egin izan balu, agian ez zituela jasoko hainbeste kritika. Zubiaren ikuskizuna telebistan jarraitu genuenon ikuspegitik, ordea, ez dut ikusten kritikarako inongo arrazoirik. Argitxinparta efektuen emanaldia bikaina ere izan zela esango nuke.

Hemen kontuan da, zein arraiok kontatu dion Hansel kataluniarrari nortzuk garen euskaldunak. Zubiaren alde batean euskal tipologi topikoenak kokatu ziren: harri-jasotzaileak, trontzalariak,

aizkolariak..., kaleko arropa arruntarekin jantziak, Europako Hiriburu Kulturealean euskaldunak Josechu el vasco itxuran ikusiko gaituztela adierazi nahian edo. Eta nork deitu dio ikuskizun honi *elkarbizitzaren zubia?* Alde batean, euskal morroskoak zeuden, ez gaurko ingeniari, enpresari, kooperatibista, artista, euskara berreskuratzen ari garenak..., ez, morrosko landatarrak baikizik; eta bestaldean, nortzuk zeuden? Zer egin dute bestaldekoek elkarrekin lasai bizitza izorratzeko?, eta elkarbizitza berreskuratzeke zubi bat eraiki behar izateko?

Honen guztiaren azpian

eta urtean zehar ikusiko ditugun hamaika zaplatzekoren atzean hasierako diseinuaren itxuragabekeria dago, ondoko urteotan agintariekin aldatu nahi izan ez duten programa itxuragabea alegia. Madrilen besaulkia amesten zuten Odon, Patxi eta antzekoen ikuspegi gaitzotia, Madrilerako topikoz jositako konplexuen diseinuak eurekin eramaten dituztenak. Abizen euskaldunak *graziosoak* iruditzen zaizkie; oraingoan, berriz, Perez, Rodriguez edota Pajares Donostiarrak baldin badira *Josetxu* dira denak; eta zuek donostiarrak, espabilatu.

Beñi Agirre Oiarzabal

## ■ BILGUNE FEMINISTA



Plaza Berrin elkartu ziren, Gasteizko eraso salatzen.

### Gasteizko eraso sexista salatzen, kontzentrazioa egin zuten Plaza Berrin

Herritar ugari elkartu zen ostegunean, Plaza Berrin, Gasteizen gertatutako eraso sexista salatzen. Bilgune Feministak egin zien deialdia herritar guztiei, iluntzean, bertaratu eta guztien artean gogor aldarrikatzeko: *Eraso sexistarik ez!* ■

## ■ SUTU HERNANI

### Patinatzeke zita gaur, hila bukatzeko

Gaur emango dio bukaera hilabeteko programari, Sutu Hernani taldeak. Eta azkeneko zita, Txuri Urdinera patinatzerako joateko jarri dute. Arratsaldeko 16:15etan elkartuko dira, Atsegindegiko A1 autobusaren geltokian. Jakinarazi dute, 20 lagun edo gehiago elkartuz gero, deskontua izango dutela sarreran. ■

## ■ OSIÑAGAKO AUZO ELKARTEA

### Bilera bihar, Arriatzu eskolan

Urte hasierako bilera egingo du bihar, eguerdiko 12:00etan, Osiñagako Auzo Elkarteak. Arriatzu eskolan izango da, eta bost puntu landuko dituzte bertan: 2015eko balantzea, batzordearen aldaketa, 2016ko egutegia, auzoaren beharrak, eta bestelakoak. ■

## ■ GAZTE TXOKOA

### 'Master Txef', gaurko zita

*Master Txef* txapelketa egingo dute gaur, Hernaniko Gazte Txokoa. Arratsaldeko 16:30etan irekiko dituzte lokaleko ateak, eta orduan osatuko dituzte taldeak. Osagaiak eman, eta pintxo bana egin beharko dute, eta pintxoari izena jarri. Saria izango dute irabazleek. ■

## ■ KZ GUNEA

### Otsaileko ikastaroetan, izenematea

Hastear da ikastaro txanda berria, Hernaniko KZgunean. Otsailean, hamar ikastaro izango dira aukeran, eta horietakoren bat egin nahi duenak, zabalik dauka izena emateko epea: [tutor.hernani@kzgunea.net](mailto:tutor.hernani@kzgunea.net), 943 02 36 50 edo [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus). ■

## ■ ETXERAT

### Errifako bost zenbaki sarituak, aterata

Egin du errifaren zozketa, Etxerat elkarteak. Atera ditu bost zenbaki sarituak, eta baita erreserbako beste bost ere, irabazleak agertuko ez balira. Honakoak dira sarituak (parentesi artean erreserbakoak): aurreneko saria, Kubara bidaia, 15.511 zenbakiari (55.290); bigarren saria, aste-buru pasa landetxe batean, 01.929 zenbakiari (44.761); hirugarrena, sagardotegia, 08.352 zenbakiari (06.787); laugarrena, parapente hegaldia, 24.037 zenbakiari (40.878); eta bosgarrena, presoak bisitatzeke bidaia, 20.769 zenbakiari (50.501). Irabazleek, 30 eguneko epea daukate saria jasotzeko. ■

INAUTERIAK

# Inauteriei deika, konpartsak

Kaldereroak aterako dira gaur, Elur Txori elkartetik, iluntzeko 21:00etan. Bihar, Iñude eta Artzaien txanda izango da, eta Musika Bandak kontzertua emango du.

DATORREN ostiralean hasiko dira Inauteriak Hernanin, eta lehenbailehen iritsi daitezten desiatzen, dei hirukoitza egingo diete, asteburu honetan.

Gaur gauean aterako da Kaldereroen konpartsa, herriko kaleetan zehar lapiko eta zartaiaak jo eta jo. Elur Txori elkartetik abiatuko dira, iluntzeko 21:00etan.

Aurretik, afaria ere egingo dute, elkartean bertan, festa borobila izan dadin. Arratsaldeko 19:30etan elkartuko dira, eta nahi duenak, elkartean dauka apuntatzeko lista. Prezioa 8 eurokoa da.

**Iñude eta Artzaiak bihar, Urumea ikastolaren eskutik**  
Bihar, berriz, Iñude eta Artzaien konpartsa antzetzuko dute, herriko kaleetan zehar, Urumea ikastolaren eskutik. Eguerdiko 11:45etan aterako dira, eta Kaxkoko kaleetan barrena ibili ondoren, Plazan antzetzuko dute ekitaldi nagusia: Iñudeen haurrei txertoa eman ondoren, udal txeko agintariei aurkeztuko dizkiete, beraien izenak erregistroan idatzita geratzeko. Gero, azkeneko arin-arina



Gaur gauean aterako da Kaldereroen konpartsa, Elur Txori elkartetik.

dantzatu, eta ikastolara bueltatuko dira.

23garren edizioa izango du Iñude eta Artzaien konpartsa, eta 250 lagunek osatuko dute aurtengoa; tartean, 50 dantzari, eta garai bateko pertsonaia ugari: globeroak, piruleteroak, barkileroak, umezainak, alkatea, idazkaria, sendagileak, erizainak,

zapata-garbitzaileak, argazkilariak...

**Musika Bandak, kontzertua**  
Urumea txaranga ere izango dute lagun, Plazako ekitaldian, eta Hernaniko Musika Bandak ere, Inauterietako kontzertua eskainiko du, urtero bezala. Udaletxeko arketan izango da, eguerdiko

13:15etan hasita, eta Tolosako Inauterietako kanta ezagunak joko dituzte, Roberto Pachecoren zuzendaritzapean.

15 pieza izango dira: *Diana, Pello Ziri Ziri, Baratzeko Pikukak, Galtzaundi, Pastelero, Farol Dantza, Paquita La Vergaresa, Isabelita, Habanera, Contrapas, Polka, Praskuarena, Habanera, Jota eta Irureta.* ||

UDALA

## Hernaniko eta Beterriko esperientziaz, Bruselan

Luis Intxauspe alkateak parte hartu du egunotan, Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko Europako I. Forumean. Hernaniko Udalaren programak azalduko ditu.

BRUSELAN izan da Luis Intxauspe alkatea, egun hauetan, Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko Europako I. Forumean parte hartzen. Bertan azaldu ditu, Hernaniko eta Beterriko esperientzia; Udalak parte hartu edota sustatzen dituen programak.

Europako Parlamentuko Ezker Bateratuaren Talde Konfederalak gonbidatuta, hitzaldi eta tailerrak egin dituzte, Europako eskualde desberdinetako esperientziak trukatzeko asmoz: Alemania, Belgika, Portugal, Irlanda, Euskal Herria... Tartean, Hernaniko Udalekoa.

Batetik, Beterri eskualdeko programei buruz aritu da Intxauspe: *Kooperatzen* eta *Beteberritzen* programak.

**Aurrekontu partehartzaileen berri, Forumean**

Eta bestetik, Udalaren ekimenak azaldu ditu: aurrekontu partehartzaileak, «herritarrei kudeaketa publikoan erabakitze ahalmena ematen dien programa»; merkatu soziala sustatzeko Goiener, Fiare eta SSE Azoka ekimenak, kontratazio publikoetan klausula sozialak txertatzeko politika, baratza ekologikoen parkea... ||



Luis Intxauspe Forumean, Bruselan.

BETIKO MARKET

## Merkatua, bihar ere bai

Betiko Market azoka jarriko dute Urbieta kalean, bihar.

AURREKO igandean jarri zuten aurrenekoz, Hernanin, Betiko Market azoka. Eta beste behin ere jarriko dute, bihar bertan. Urbieta kalean izango da, eta eguraldi txarra egiten badu, Atsegindegin. Goizeko 11:30etatik arratsaldeko 20:00etara egongo da.

Mondragon Unibertsitateko ikasle talde batek jarri du martxan, Kimmu taldeak, eta Euskal Herrian zehar antolatu dituzte merkatuak, artista, diseinatzaile eta sortzailez osatutako komunitatea eginez.

**Arropa, umeentzako gauzak, dekorazioa, poltsoak...**

Hamabi postu egongo dira bertan, eta mota guztietako produktuak jarriko dituzte salgai: arropa, umeentzako gauzak, xaboi naturalak, poltsoak, dekorazio produktuak, bitxiak... ||

BIDEGI

## Drenaje hodi bat, Galarretatik Ospitaletara

Errepidea zeharkatuko du hodiak, baina ez da mozketarik izango.

DRENAJE hodi bat jarriko du Bidegik, Galarretatik Ospitaletara igotzen den errepidean. Hodiak alderik alde zeharkatuko du errepidea, baina ez dute errepidea moztu beharko. Izan ere, hinka bidezko sistema erabiliko dute.

Hodia 47 metro izango da luze, eta 1,2 metro zabal. Lur azpitik sei metrora jarriko dute.

**Helburua, ezkerreko ibarretik datozen urak kanalizatzea**

Hodi horren bitartez, helburua da kanalizatzea errepidearen ezkerreko ibarretik datozen urak. Errepidearen azpitik bideratuko dituzte, beste aldeko kunetaraino, eta hortik, AP-8 errepideko kunetara kanalizatuko dituzte.

Hodiaren lanak hasi aurretik, kunetak berritu eta haunditzen ari dira orain. ||

## ERRUGBIKO SUB16 TALDEA ASIER GAZTAÑAGA ETA JOXE ELOSEGI



Hernaniko 16 urtez azpiko taldea. Joxe Elozegi eta Asier Gaztañaga entrenatzaileak, bi alboetan.

# «Bederatztik bederatzi irabazi ditugu»



MIKEL AGINGALDE

Hernaniko Club de Rugby Elkarteko hamasei urtez azpiko taldeak denboraldi hasiera ezin hobea izan du Euskal Ligan, eta jokatu dituzten bederatzi partiduetan guztietan, garaipena lortu dute. Gaur Zarautzen jokatuko dute, 11:00etan. Taldeko bi entrenatzaileekin hitz egiteko aukera izan dugu.

### AURTEN denboraldi abiatze bikaina izan duzue, zein da arrakastaren gakoa?

Uste baino hasiera hobea izan dugu, eta egia da gauzak oso ondo ateratzen ari zaizkigula. Oso pozik gaude taldea ematen ari den errendimenduekin, eta hori lortzeko giltza aste barruan egiten dugun lana dela uste dugu. Izan ere, entrenamenduak prestatzeko moduak emaitzetan zer ikusia duela argi geratzen ari da.

### Liga txapelketa irabazteko aukera ikusten duzue?

Zalantzarik gabe. Orain artean 9 norgehiagoka jokatu ditugu eta guztietan irabaztea lortu dugu. Zerbakiak ikustea besterik ez dago; aldeko 84 entsegu ditugu, eta aurka, berriz, lau besterik ez. Gainera, 9 bonus ere erdietsi ditugu. Dinamika honekin jarraituz gero, Euskal liga irabazi eta Espainiako txapelketa parte hartzeko aukera izango dugu. Hori da taldearen erronka nagusia, eta xede hori lortzea sari itzela litzateke guztiontzat. Hala ere, pausoz pauso joatea komeni zaigu.

### Zein dira aurkari gogorrenak?

Talde indartsuenak Ordizia,

### «Taldea kohesioa da alderdirik sakonena»

Getxo eta Zarautz dira. Azken honen kontra asteburu honetan jokatuko dugu etxetik kanpo. Bestalde, gure ligaren zailtasun handienetakoa da txapelketaren lehen fasea partidu bakarrera jokatzea, eta ondorioz, aurkari gogorren aurka beraian zelaian lehia-tzea tokatu ahal zaizula, eta ez etxean. Ondoren playoffa jokatzen da lau onenen artean. Hauek joan-etorriko partidak izaten dira. Irabazten duena Espainiar Estatuko txapelketa-ara pasako da.

### Zenbat jokalaririk dira taldean? Nongoak?

Guztira 28 jokalariz osatutako taldea daukagu eta guztiak hernaniarrak dira. Gehienak Langile Ikastolakoak, nahiz eta beste ikastoletako gazteak ere badauden. Horrez gain, bi neska daukagu taldean eta maila ona ematen ari dira. Errugbian hasi berriak izan arren, ondo egokitu dira talde dinamikara, gainontzeko joka-

larien babes eta laguntzari esker.

### Zeintzuk dira taldearen indarguneak? Zertan hobetu dezakezue?

Beharbada talde kohesioa da alderdirik sendoena, eta zehazki atzeko eta aurreko lerroen elkar ulertzea. Entrenamenduak modu berezi batean antolatu eta lantzen ditugu, hau da, bi bloke bereizten ditugu; batetik atzelariak eta bestetik, aurrelariak. Entrenatzaile bakoitza lerro bat entrenatzeaz arduratzen da eta horrela lanketa zehatzak egiteko aukera dugu. Ondoren prestatutakoa denon artean uztartzen dugu. Azken finean, talde oreka bilatzeari ematen diogu garrantzia.

### Zenbat egunetan entrenatzen duzue?

Astean hiru entrenamendu saio egiten ditugu, asteburuko partiduez gain. Horietatik bitan zelaian aritzen gara, eta hirugarrenean, aldiz, gimnasioan.

### Nolakoa da talde giroa?

Oso ona. Pozik egoteko arrazoiak daukagu. Taldekideak izateaz gain, gazteen artean

dagoen konplizitatea bikaina da, eta ez da zelaian bakarrik geratzen. Lagun taldea dira eta errugbiaren gain, kalean ere elkarrekin ibiltzen dira gehienak.

### Baliabide eta diru aldetik nola zabilzate? Konpontzen zarete? Zer eskatuko zenukete?

Euskal Herriko beste talde handiekin alderatuta desabantaila ekonomikoa ezaguna da eta horrek eragina du arlo batzuetan. Jokalari gazteen gurasoek hainbat gastu ordaindu behar izaten dituzte. Orain gutxi, esaterako, Valladoliden izan ginen lagun arteko txapelketa bat jokatzen eta hara joateko garraioaren kostua beraian poltsikotik ordaindu dute.

### Zer behar da gazteen errugbi entrenatzaile izateko?

Lehenik eta behin gogoia. Horrez gain, errugbia gustatzea, eta gure ustez funtsezkoena, gazteekin balore batzuk elkarbanatzeko prest egotea. Errugbiaren haratago, gazteek eguneroko bizitzan izan ditzaiketen arazoetatik kezkatzea eta ahal den neurrian beraiei laguntzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu. ■

■ HERNANI ERRUGBI ELKARTEKO HARROBIA

# «Errugbi harrobia, zaindu beharreko harribitxia»

*Etxeko jokalariengan sinistea izan da sortu zenetik Hernani C.R. Elkartearen oinarria. Gaur egun inoiz baino gazte gehiago batu dira*

*errugbiaren mundura eta hori oso pozgarria da. Txalotzekoa, berriz, klubak urteetan zehar eginiko lana.*

AZKENALDIAN ohikoa bihurtu da Hernaniko kaleetan neska-mutil koskorak baloi obalatuarekin jolasten ikustea. Kirol horrekiko zaletasunak gora egin du, eta hori errugbi klubean sumatu dute. Urtero gehitu egiten da klubeko bulegoetan izen ematen duten jokalaria berrien kopurua.

Senior mailara iristen diren gazteak ere asko dira, eta maila ona emateko gai direla erakutsi izan dute. Beraz, baikor izateko arrazoiak dituzte taldeko ardura-dunek. Hamasei urtez azpiko taldearen entrenatzaile Asier Gaztañagaren arabera «Lehen taldeak izan duen kirol arrakastak jende ugari erakarri du gurera».

**Neskak eta mutilak, berdin** Landarera jaisten direnen artean, gainera, gero eta ugariagoak dira neskak. Beste kirol askotan ez bezala, mutilak eta neskek talde berean jokatzen dute klubeko kategoria guztietan, senior mailan izan ezik. Emakumeen senior mailako taldea Euskadiko txapelketan ari da parte hartzen, eta gainera, hainbat jokalaria Euskal Selektzioan egonak dira.

**Kluba herritarrei gerturatzea, giltza** Gaztañagak dio klubak Hernaniko ikastolekin egiten duen elkarlana funtsezkoa dela. Senior taldeko jokalaria boluntario batzuk gorputz heziketako eskoletara joaten dira Hernaniko ikastola ezberdinetara, umeei errugbiaren inguruko oinarritzko ezagutza irakastera. Azken hau giltzarria da neska-mutilak erakartzeko.

Horrez gain, urtero, denboraldia hastearekin batera,



Harrobi bikaina duela erakutsi zuen elkarteak, denboraldi hasieran.

Landareko kirol instalakuntzak irekitzen dira, nahi duenak kluba ezagutu eta errugbiarekin lehenengo harremana izan dezan. Hurbiltzen diren gazteenak sei eta zazpi urteko haurrak izaten dira.

Gaztañagaren arabera, «gazteei erakutsi behar zaie errugbia kirol dibertigarria dela eta edozeinek egin dezakeela. Topikoak hautsi behar ditugu, kontaktu kirola izan arren, ez dago ia arriskurik. Gainera, beldurrak eta lotsak bazterrean uzteko garaia da». Bestalde, uste du talde giro paregabea sortzen dela eta partaideek disfrutatuta egiten dutela.

**Talde lana** Gaur egun, staff teknikoan hogeitaz hamar entrenatzaile dira guztira, talde bakoitzeko bi, prestatzaile fisiko eta masajistaz

«Ikastolekin egiten den elkarlana funtsezkoa da»

gain. Denboraldi hasieran maila ezberdinetako taldeen erronkak finkatzen dira klubaren zuzendaritzarekin batera, baina beti ideia eta helburu nagusi bat jarraituz. Gaztañagak dio garrantzitsua dela proiektu zehatz bat finkatzea, hartara, klubeko katebegi guztiak batuta egon daitezzen, guztiak norabide berean arraun egin dezaten.

**Harrobia eta emaitza onak** Harrobian egindako lan mardulak eman dituen emaitzak agerikoak dira, batez ere kirol lorpenetan, baina baita

beste hainbat arlotan ere. Horren adibide dira, besteak beste, azken bi hamarkadetan Euskal eta Espainiar selektzioetara joateko deituak izan diren jokalaria kopuru handia edota urtean behin antolatzen den garagardo azoka arrakastatsua.

Hori horrela izatearen arrazoi nagusienetakoa errugbiak herrian aspalditik izan duen harrera ona da. Senior mailako taldearen jardun apartak errugbiarekiko zaletasuna piztu du hernaniarren artean, Landarera jaisten den jende andana ikustea besterik ez dago.

Afizio horren ekarpen ekonomikoa da Klubaren kirol egitura mantentzeko diru iturri nagusietako bat, eta esparru hori zaintzea ezinbestekoa da. Beste diru sarrerak

inguruko enpresen babesetik iristen dira. Zentzu horretan, Gaztañagak uste du zaleez gain enpresak ere erakarri behar dituztela, eta azkenaldian xede hori inoiz baino hobeto betetzen ari direla.

Azkenik eta laburbilduz, azpimarratu behar da Hernani C.R. Elkartearen filosofia berbera izan dela jai zen urtetik hona. Herriko gazteengan konfiantza eduki, balio zehatz batzuk transmititu eta jokalaria lehen taldera iristeko prestatu. Heine handi batean egoerak behartuta jardun behar izan dute modu horretan, egoera ekonomikoa ez baita izan haiek nahi luketena bezain ona. Hala ere, egiten duten eguneroko ahalegina benetan goraiatzekoa da. Hernaniko errugbiak badu geroa. ■

## ■ ARRAUNA GIPUZKOAKO BATEL LIGA

# «Lan txukuna egin dugu neguan, eta kategoria guztietan ikusten ari da»

Gipuzkoako Batel Ligako 4garren jardunaldia jokatu da bihar, 10:00etan Trintxerpen, eta Hernaniko 8 batel ere bertan izango dira. Denboraldia hasi besterik ez da egin, baina dagoeneko, emaitza onak lortzen hasi dira gazteak.

GOIZ xamar izan daiteke oraindik, denboraldia nola joango den asmatzeko, baina Jon Iruretagoiena eta Ainhitze Kalonjek entrenatzen dituzten neska-mutilak hasiera bikaia eman diote Gipuzkoako Batel Ligari.

Bihar jokatu dute laugarren jardunaldia, 10:00etan Trintxerpen, eta beste 11 estropada geratzen zaizkie.

**Hasi berria da Gipuzkoako Batel Liga, eta dagoeneko, garaipenen bat izan da tarteko. Indartsu daude arraunlariak?**

Indartsu baino, gogotsu. Lan txukuna egin dugu neguan, eta kategoria guztietan ikusten ari da.

**Badirudi Getaria eta Orio izan daitezkeela aurkari gogorrenetakoak. Zer falta zaio Hernaniri, horiei irabazteko?**

Ez dakit zuzeneko aurkariak horiek diren. Kategoria bakoitzak dauka bere arerioa. Egia da jubenilek garaipen bat lortu dutela, eta bestetan, getariarrak izan direla aurrenekoak. Jubeniletan bai, zuzeneko aurkariak dira. Baina oraindik 3 estropada bakarrik jokatu dira, eta denbora gehiago behar dugu, aurkariak zein izango diren ikusteko.

**Aurrena Gipuzkoako Batel Liga, ondoren, trainerillak, Udaberriko Liga...**

**Erronkarik zahatu al duzue denboraldirako?**

Erronka horiek zein diren denborak esango digu. Argi dago nagusia dela talde guztiek liga jokatzeko, eta beraien onena ematea. Garaipena ere etorri da, eta pozik gaude.

**Diferentzia handia dago liga batetik bestera?**

Gipuzkoako Batel Liga apirilean bukatzen da, eta gero, trainerillak hasten dira. Baina hemen jubenil eta seniorretako neska-mutilak aritu daitezke, eta infantil eta



Haur mailako mutilak, Ligako aurreneko jardunaldian.

«Erronkak zein diren denborak esango digu. Argi dago nagusia dela, talde guztiek liga jokatzeko, eta beraien onena ematea»

kadeteentzako, Udaberriko Batel Liga hasten da.

Esango nuke ia-ia kirol ezberdinak direla! Batela oso teknikoa da, arina, jende arinarentzako. Trainerillak eta traineruak, berriz, beste maila bat eskatzen dute, bai fisikoki eta baita teknikoki ere.

**Arraunlarien teknikan, indarrean, talde-lanean... nabaritzen al da, dagoeneko, progresiorik?**

Noski. Batez ere bateletan, asko nabaritzen da aurreko urteetako lana. Lau arraunlari batera aritzen badira urte askotan, azkenean, batel hori ibili egiten da. Azken urteetan Hernanin lan txukuna

egiten ari da kategoria bajeunetan.

**Maialen trainerua uretaratzeak ere izango du eraginik, arraunlari gazteak motibatzeak. Pasa al zaizue burutik mutilen trainerua ere ateratzea?**

Argi dago nesken trainerua uretan edukitzeak klubari asko ematen diola, gazteak motibatzeak garaian. Baina baita herria bera motibatzeak ere. Ez dakit zer den, baina zerbait ematen dio.

Mutilen traineruari dagokionez, berriz, oso zaila da galera horri erantzutea! Hernanin ez daukagu itsasorik, eta ibaian traineruarekin ibiltzea ez da posible. Neskek

Pasaian entrenatzen dute. Beste klubek ez daukaten *handicap* bat dauka Hernanik.

**Gipuzkoako Batel Ligan 8 batelekin ari zarete. Gehiago ere badauzka Hernanik?**

Ligan 8 batel dauzkagu, bai. Baina ligatik kanpo ere beste batzuk uretaratzen ditugu, arraunlari guztiek arraun egin dezaten.

**Harrobia badago orduan... Harrobia? Bai! Lasai gaude, zentzu horretan! ||**

**Gipuzkoako Batel Ligan, Hernaniko 8 batel**

- Promesa neskek: bi talde.
- Infantil mutilak: talde bat.
- Kadete mutilak: bi talde.
- Absolutuak neskek: talde bat.
- Jubenil mutilak: bi talde.

\*Jubeniletako aurreneko taldeak lortu du aurreneko garaipena: aurrenekoa izan zen lehengo larunbatean, Donibane Lohizunen, eta bigarren egun zuen igandean, Pasaian.

## ■ ERRUGBIA

**Eibarren kontra bihar, neskak**

Etetik kanpo, Eibarko Unbe zelaian jokatu du bihar 11:00etan Euskadiko Txapelketako 5garren jardunaldia, emakumezkoen taldeak. Oho-rezko Mailak, berriz, atsedena du. ||

## ■ ESKUBALOIA

**Urnieta eta Leizaran aurkari, etxean**

Infantil mailako nesken B Gasogas taldeak Urnieta hartuko du etxean gaur, 12:00etan aurreneko pistan. Infantil nesken Sorlan taldeak, berriz, Leizarani egin behar dio aurre bihar, 12:00etan, aurreneko pistan. Eskubaloia Eskolak ere igandean jokatu ditu lagunarteko hainbat partidua, 10:00etan hasita Zarautzen. ||

## ■ FUTBOLA

**Azken porrotari buelta eman nahian, neskak**

CD Hernaniko neskek Zubipen jokatu dute gaur, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Euskal Ligako neskek azken porrotari buelta ematea dute helburu, baita garaipenaren hiru puntuak etxean uztea. ||

**Real Unionen aurka, mutilek**

Irunen jokatu dute ohorezko errejonaleko mutilek Real Unionen aurka. Gaur arratsaldean izango da partidua, 15:30etan hasita. ||

## ■ JUDOIA

**Gipuzkoako txapelketa, kiroldegian**

Gaur 16:00etatik aurrera Gipuzkoako Judo txapelketa egingo dute kiroldegiko lehenengo pistan. Infantil mailako txapelketara joateko lehenengo aukera dute hau, eta juniorrak, dominak irabazteko intentzioarekin doaz. ||

## ■ SASKIBALOIA

**Seniorrak etxean, gaur**

Mondragon Unibertsitatearen aurka jokatu dute gaur senior mailako mutilek. Kiroldegian izango da partidua, arratsaldeko 16:45etan. ||

## ■ WATERPOLOA

**Master Askartzaren aurkari, bihar**

Waterpoloko Hernani KE.ko seniorrek Master Askartzaren aurka hartuko dute bihar. Eguerdiko 12:30etan izango da, kiroldegiko igerilekuan. ||

■ PALA EUSKAL HERRIKO ELITEA ETA IREKIA

# Sei palista hernaniar, Euskal Herriko Txapelketetan

Gaur hasiko dira Euskal Herriko paleta gomako elite txapelketa eta txapelketa irekia, bi mailatan. Hernaniarrik ez da faltako.

EUSKAL Herriko elkarten arteko txapelketa irabazita, Euskal Herriko titulu berrien bila abiatuko dira palista hernaniarrek asteburu honetan.

Batetik, gomazko paletako elite mailako txapelketa hasiko da gaur, 16:00etan Azkoitian, eta bestetik, Euskal Herriko irekia, bigarren eta aurreneko mailan, 16:00etan Etxarrin eta Mallabian. Guztira, 52 palista inguru ariko dira, eta tartean, hernaniarrek.

**Elitekoa Azkoitian, otsailaren 26ra arte**

Elite mailan ariko dira, A taldean, ondorengo bikoteak: Pradera-Ruiz de Laramendi, Irazu-tabarrena-Etxaniz, Araiztegi-Agirre eta Muneta-Huizi; eta B mailan: Arrizabalaga-Arrieta, Garmendia-Saez, Martin-Eizmendi eta Aristorena-Isasmendi. Bi taldeetako aurreneko bi sailkatuek jokatuko dituzte finalerdiak, otsailaren 20an, eta finala otsailaren 26an izango da.



29-30 irabazi zioten hernaniarrek Oberenari, Euskal Herriko elkarten arteko txapelketan, pasa den asteburuan.

**Euskal Herriko irekia, martxora arte**

Euskal Herriko irekia ere gaur hasiko da, eta Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroan jokatuko

dira, bi mailatan. Aurreneko mailako finala otsailaren 26an jokatuko da, Elitekoarekin batera, eta bigarren mailakoa, martxoaren 6an. ||

■ KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

ESKELAKIA			ESKELA BILATA				
Semir Erak.	Sibar Hernani	Elorri	Sibar 11:00	Yagoak	Cheriza Olego/Olorri	Goian	Sibar 11:13 (2)
Saldak (2012)	Zoraitz Hernani	Ahiz	Sibar 12:13	Jabarrak	Agnis Beroa/Daburu	Hernani	Sibar 12:30 (2)
Bilarrak (2012)	Zoraitz Hernani	Ahiz	Sibar 11:00	Jabarrak	Ludovic C. Arce/Ortiz/Julio	Goian	Sibar 11:13 (4)
Ardak (2012)	Kozle Kozle	Michele	Sibar 11:00	Kalokak	Lorakge Inosa/Beloki	Hernani	Sibar 11:30 (1)
Berriak (2012)	Kozle Kozle	Michele	Sibar 11:00	Arribak	Narrazio-Iturriz/Gueta	Hernani	Sibar 11:30 (3)
EUTEREA			EUTEREA				
Herrak, Fokoi Liga	Hernani Agos	Zulpoen	Sibar 10:00	Arribak	Arriaga-Iturriz/Gueta	Hernani	Sibar 11:30 (3)
Nat. Olor. Erreg.	Itzi Luze-Hernani	Lezan	Sibar 12:30	Arribak	Jaco-Hernani/Talasa	Hernani	Sibar 11:30 (5)
Nat. Erreg. Gar.	Adara-Hernani	Luzan	Sibar 10:30	Arribak	Hundru/Egoitz Arribak	Artzagoitia	Sibar 11:30 (1)
Garab. Larra. Hala	Montxoigo-Hernani	Ariztegui	Sibar 10:30	PALA			
Jub. Mux. Liga Her.	Hernani-Horzo	Zulpoen	Sibar 10:00	Larik. Olor.	Pradera-Ruiz de Laramendi/Pradera-Horzo	Ahiztegui	Sibar 10:00 (1)
Jub. Mux. Olor.	Hernani-Dab. Gado	Zulpoen	Sibar 12:00	Larik. Olor.	Iturriz-Bermeo-Olorri/Muneta-Huizi	Ahiztegui	Sibar 10:00 (2)
Gal. Nat. Olor.	Hernani-Ardak	Zulpoen	Sibar 11:00	Larik. I. Nela. EH	Gilbertoza-Villaverde/Trehan-Gar-Sabarrak	Mallabian	Sibar 10:00 (3)
Gal. Nat. Olor.	Bilarrak-Hernani	Bilarrak	Sibar 12:00	Larik. 2. Nela. EH	Tijero-Serote/Talasa-Hernani	Iturri	Sibar 10:00 (1)
Gal. Nat. I. Nela	Hernani-Bilarrak B	Zulpoen	Sibar 11:00	ERREMONTIA			
Erretil. Nat. Olor.	Hernani-Bermeo	Zulpoen	Sibar 13:00	1. partida	Sepulveda-Larrea/Ortiz-Labaka	Gobernari	Sibar 10:00
Erretil. Olorak	Ariztegui-Hernani	Bermeo	Sibar 12:30	2. partida	Solano-Alcorta (13/14) Lar-Dab. B	Gobernari	Sibar 10:00
Bil. Nat. Larra	Hernani-Dabur C	Zulpoen	Sibar 09:30	3. partida	Hernani (13) Lar-Dabur C-Bermeo B	Gobernari	Sibar 10:00
Bil. Nat. Larra	Hernani-Ardak	Zulpoen	Sibar 09:30	4. partida	Hernani-Villaverde/Trehan B-Olorri	Gobernari	Sibar 10:00
Bil. Nat. Larra	Hernani-Bilarrak B	Zulpoen	Sibar 09:30	ESKELAKIA			
NABARRIETAN			ESKELAKIA				
Semir Erak.	Hernani-Bilarrak B	Erretil. Olorak	Sibar 11:45	Erretil. Olorak	Hernani-Larra	Karribelean	Sibar 11:00
Jabarrak (2012)	Hernani-Bermeo	Erretil. Olorak	Sibar 11:45	Erretil. Olorak	Hernani-Larra	Karribelean	Sibar 11:00
Jabarrak (2012)	Hernani-Bilarrak B	Ariztegui	Sibar 11:45	Dabur	Zoraitz-Hernani	Artzagoitia	Sibar 11:00
Gado Nat.	Adara-Hernani	Ahiz	Sibar 10:00				

■ ERREMONTIA

## Barrenetxeak Ezkurra II izango du lagun, Matxin III eta Ionen kontra

Erremonte jaialdia izango da larunbatero bezala, gaur Galarretan. Arratsaldeko 16:00etan hasiko dira partiduak eta hirugarrengoa, Endika Barrenetxea erremontista hernaniarrek jokatuko du. Ezkurra II izango du lagun, gaurko lehia; eta aurrean, Matxin III eta Ion. ||



Endika Barrenetxea.

**Eskelak**

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

### † M<sup>a</sup> PILAR ARANBURU SALABERRIA

(Norberto Urangaren alarguna)

Herenegun hil zen, 69 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Shanti, Asier, Itxaso eta Gurutz San Miguel; biloba: Eneko; ama: Pakita Salaberria (Joxe Aranbururen alarguna); anai-arrebak: M<sup>a</sup> Jesus eta Paco Bueno, M<sup>a</sup> Carmen eta Benito Errazkin, Isidro eta Isabel Lamy eta Maritxu Uranga; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.



Haren animaren alde oitutz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezteza **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**Hernani, 2016ko urtarrilaren 30ean**

OHARRAK: Gorputza VASCONGADA EHORIZKETA TANATORIOAN (Orkolaga kalean) egongo da eguerdiko 12:45ak arte.

### M<sup>a</sup> PILAR ARANBURU SALABERRIA

Eguneroko elkar-bizitza, kontu-kontari, negarrez, parrez, elkarri lagunduz... une atseginak!

Beti gure bihotzetan, muxu haundi bat.

**FERNANDEZ YUBERO FAMILIA ETA LIDENI.**

**Hernani, 2016ko urtarrilaren 30ean**



### † M<sup>a</sup> PILAR ARANBURU SALABERRIA

- Goian Bego -

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik.

**1946AN JAIOTAKO KINTOAK ETA KINTAK**

**Hernani, 2016ko urtarrilaren 30ean**



**FUNERARIA ORBEGOZO**  
ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.  
**943 33 10 20**

[www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

**Zentrala HERNANI**  
Latsunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

■ AURREMATRIKULAZIOA 2016

## Herrian ikasiko duten txiki eta gaztetxoentzat, aurrematrikulazioa irekita

*Aurrematrikula kanpaina hasi zen astelehenean, eta otsailak 5era arte egongo da irekita Euskal Autonomia Erkidegoan. Nafarroan, aldiz, otsailaren 15etik 19ra izatea aurreikusten da. Haur Hezkuntza (2 urte) eta DBH (12 urte) hasten dutenak daude deituta. Aukera zabala dute Hernanin, baita Astigarragan eta Goizuetan ere.*

IKASTURTEA aurrera doa, eta, urtero bezala, hurrengo prestatzen hasi dira Urumea bailarako ikastetxeak. Aurrematrikula garaia hasi zen astelehenean Hernanin eta Astigarragako eskoletan, eta otsailaren 5era arte egongo da izenematea irekita. Goizuetan, ordea, otsailaren 15ean ireki eta 19an itxiko da, Nafarroako Gobernuaren aurrematrikula daten arabera.

Dena dela, momentu batean edo bestean gurasoek hartu beharreko erabaki bat da ikastetxea aukeratzearena. Eta horretarako, Urumea bailaran aukera zabala dute haur eta gazteek herrian bertan ikasi dezaten: Hernanin bost ikastetxe eskaintzen dute Haur eta Lehen Hezkuntza, eta bik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; Astigarragan, Herri Eskolak 2 eta 12 urte bitarteko hezkuntza eskaintzen du, eta Goizuetan Xalto Ikastetxeak, 3 urtetik 13ra bitartekoa.

### Hernanin, aukera zabala Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak burutzeko

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ikasi behar dutenek, hau da, 2-12 urtekoek, Hernanin bost ikastetxe dauzkate aukeran: Elizatxo, Inmakulada, Urumea, Langile eta Txirrita, Ereñotzun. Bigarren Hezkuntzan, aldiz, aukera txikiagoa da, bi ikastetxeak: Inmakulada eta Hernanin BHI. Azken honek bakarrik eskaintzen du Batxilergoa herrian bertan.

Gainera, eskolen artean badaude desberdintasunak. Elizatxok, Inmakuladak eta Urumeak bi lerro dituzte, hau da, baimena daukate maila bakoitzeko bi gela irekitzeko. Bi urteko ikasleen kasuan, gela bakoitza 18 haurretakoa izango da gehienez, beraz, Haur Hezkuntzako aurreneko mailan 32 plaza dauzkate bakoitzak. Langilek, ordea, hiru gela izateko aukera dauka, hau da, asko jota 54 ikasle onartu ditzake 2 urteko gelan.

Ereñotzuko Txirrita Ikastetxea da bostetik bereziena. Aurtan 62 ikasle ditu, 2-12 urte bitartekoak, Lehen Hezkuntzako 6.



Astigarragako Herri Eskolan 554 haurrek hasi zuten ikasturtea 2015eko irailean.

maila arte. Jaiotza-tasaren arabera, 2 urteko sei ikasle berri izango dituztela aurreikusten du eskolako zuzendaritzak.

### 378 haur eta gazte hernaniar, aurrematrikulatzen daude

Astelehenean, urtarrilaren 25ean, hasi zen aurrematrikulazioa 378 haur eta gazte hernaniar daude deituta: 149 haur 2014ean jaiotakoak 2 urteko gelarako, eta 2004ko 229 gaztetxo, DBHko lehenengo mailarako.

### Herrian bertan ikastearen garrantzia

Hernaniko Udalak herrian ikastearen garrantzia nabarmendu nahi izan du, eta honek dituen abantailak azaldu ditu: «merkeagoa da; erosoagoa da; seme-alaben heziketa hurbil-hurbiletik segitu dezakezu; ikastetxearen egunerokotasunean parte zuzena hartu dezakezu; seme-alabek herrian bertan lagunarte zabala izateko aukera dute; herriko jarduerak eta zerbitzuak eskura dituzte: eskola-kirola, kultur jarduerak, kiroldegia, kultur etxea,

Otsailaren 5era arte egongo da irekita aurrematrikulazioa Hernanin eta Astigarragan.

Herrian bertan ikasteak abantaila asko dituela nabarmentzen dute Hernaniko eta Astigarragako Udalek.

musika-eskola...; eta herritarrentzako aberasgarria da».

Eta gainera, eskaintza «kalitatezkoa» dela diote: «euskalduna eta eleanitza, parte hartzailea, herrian txertatua, anitza eta integratzailea, herriko eskolen arteko elkarlana bultzatzen duena, ingurumena zaintzeaz arduratzen dena...».

### Astigarragan, lau gela irekitzeko aukera iaztik

Ikasturte honetatik aurrera lau lerro izateko baimena eskuratu

zuen iaz Astigarragako Herri Eskolak. Horrela, aurrematrikulazio epean 69 plaza eskaintzen dituzte 2014ean jaiotako 2 urteko haurrentzat. Denera, 88 ume jaio ziren urte hartan.

### Hezkuntza estilo propioa, Astigarragako Herri Eskolan

Astigarragako Udalak ere bertan ikastearen onurak azpimarratu nahi izan ditu, batez ere, «Herri Eskolak herrian hazi eta harremanak sortzeko ematen duen aukera». Horrez gain, Herri

Eskolan hezkuntza estilo propioa dutela aldarrikatzen dute: «Euskera eta euskal kulturarekin konprometitu, elkarren errespetuan hezten duen eskola, ikasleekin banakako arreta, ikasleen etengabeko arreta, irakasleen etengabeko prestakuntza, gurasoen partaidetza aktiboa, kudeaketa demokratikoa...». Gainera, DBH Martuteneko Aranzazuko Ama ikastetxean jarraitzeko aukera luzatzen diete ikasleei.

### Goizuetan eta Aranoko haurrek, izenematea otsailaren 15etik

Goizuetan eta Aranoko haur askok Goizuetako 'Xalto' eskola publikoan ikasten dute 3-13 urte bitartean. Ikasturte honetan 73 ikasle daude, horietatik 56 goizuetarrak dira, eta 17 aranotarrak. DBHko 2.maila bukatzean, Leitzaan jarraitzeko aukera ematen zaie ikasleei.

Kasu honetan, aurrematrikulazio epeak desberdinak dira, Nafarroko Gobernuak ezartzen dituelako: otsailaren 15ean hasiko da epea eta 19an bukatu.■



## I UDALA

# Tranbia ibilbideko geltokietan A1 eta A2 autobusa hartu ahal izango da, astelehentik

Geltoki berriez gain, A2 lineak ordutegi berriak izango ditu astelehenetik aurrera.

ASTIGARRAGAKO Udalak jakinarazi duenez, Tranbia ibilbideko geltoki berriak astelehenetik aurrera erabili ahal izango dira; bi norantzatan dijoazen A1 eta A2 zerbitzuetako autobusak bertan geldituko dira: «Arrobitxulo eta Urumea Berri inguruan Astigarragak izan duen hazkundeak sortu du geltoki berrien beharra; hemendik aurrera, bertako biztanleei garraio zerbitzua zuzena-

goa emango zaie».

### Zerbitzu gehiago, Astigarragatik abiatuta

Udalak azaldu duenez, A2 autobusak ordutegi berriak ere izango ditu astelehenetik aurrera. Puntutan, zerbitzua indartze aldera, Hernanira eta Donostiara autobusak aterako direla azaldu dute. Donostiara aterako dira 07:10, 08:10, 09:10, 13:40,

14:40, 17:40, 18:40 eta 19:40 ordutegian; eta Hernanira 07:50, 08:50, 09:50, 13:20, 14:20, 17:20, 18:20, 19:20 eta 20:20 ordutegian.

Bestalde, Donostiarako sarbidea azkartzearen, A2 autobusaren sarrera aldatu egingo dela azaldu dute: «autobusek Okenдорantz jarraituko dute, Urumea ibaiaren albotik, Eustasio Amilibia kalera desbideratu ordez. Gainera, Bizkaia pasealekuan

geltoki berri bat jarriko da, Hezkuntza Eskola Ofizialaren aurrean, eta ez Sancho el Sabion, orain arte bezala».

### Transbordoa, debalde

Bestalde, Udalak jakinarazi du A3 lineak zerbitzua emateari utziko diola, astelehenetik: «Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabakia da, ibilbidea ez baita errentagarria.

2013ko uztailearen lehen jarri ziren martxan, eta harrezkero, batazbeste, autobus bidai bakoitzeko 3 bidaiari izan dira».

Ospitalera edo Unibertsitatara joan behar dutenek, Hernanin aldatuta egin ahal izango dutela azaldu du Udalak: «A1-A2 autobusa hartu, eta Hernanin G2 edo G3 autobusera transbordoa egin ahal izango dute, gailenturik gabe, Mugi edo Lurraldebuskin».

## I EH BILDU

# «Aldundiak A3 linea kenduko du, Udalaren utzikeria aprobetxatuz»

A3 lineak lotzen ditu Astigarraga, Ospitaleak, Miramon, Unibertsitateak eta Antiguako auzoa.

EH Bilduren esanetan, linea honen erabiltzaile kopuruak gora egin du hilabeteek aurrera egin ahala.

EH Bilduk asteazkenean emandako prentsaurrekoan salatu zuen, otsailaren 1etik aurrera A3 linea kendu egingo duela Aldundiak; hau da, Astigarraga, Ospitaleak, Miramon, Unibertsitateak eta Antiguako auzoa lotzen dituen linea. Prentsaurrean azaldu zuten, azkenean EH Bilduk esandakoa gertatu da: «otsailaren 1etik aurrera, A3 linea kenduko du Aldundiak, inor kontuan hartu gabe. Beraz, astigartarrok Gipuzkoako garraio zerbitzuan egingo den aurreneko murrizketa jasango dugu». Azaldu zuten, EAJ eta PSE-EEren Aldundiak hasieratik izan du A3 linea jomugan: «Mugikortasun Diputatuak iraileko Batzar Nagusietako agerraldian hizpide izan zuen A3 linearen defizita, eta iraileko Plenoan abisua eman genion Udal Gobernuari».

EH Bilduk azaldu zuen baita ere, urrian jakinarazi ziotela Udal Gobernuari A2 linean arazok zeudela: «Udal Gobernuak ordea, Diputazioarekin adostuta, isilpean, beste arazo bat sorrarazi zuen: A3 lineako 7:25etako autobusa kendu zuen. EAJk eta PSE-EEK 'lorpen' eta 'zorioneko' moduan zabaldu zuten lau haitzera erabaki hura».

### «Erabiltzaile kopuru eskasa izan zen argudioa»

EH Bilduk azaldu zuen, argudioa erabiltzaile kopurua izan zela: «erabiltzaile kopuru eska-

«Behemendiren zerbitzua begi onez ikusten dugu. Lurraldebusi ordaindu beharrekoa ez»

sa izan zen argudioa autobus hori kentzeko, gehienez, erabiltzaile bakarra zutela esateko». Datu horiek berresteko asmotan, EH Bilduk, urriaren 26an, Aldundiko erregistroan datuak eskatu zituztela azaldu zuen: «hiru hilabeteren ondoren, ez dugu erantzunik jaso. Hemendik, Aldundi berriaren gardentasun eza; jasandako mespretxua ozen salatu nahi dugu». Datuak Batzar Nagusietako EH Bilduko ordezkariak esker lortu zituztela azaldu dute: «informazioa eta datuak bestelakoak dira. 07:25etako autobus hori, 08:25etako autobusarekin batera, gehien erabiltzen zen zerbitzua zen. Berriz, ere, EAJ eta PSE-EE gezurretan. A2 lineako arazoari soluzioa eman bai, baina beste linea bateko erabiltzaileak kaltetu dituzte. Orduan eman zioten kolpeari esker, azkenean, A3 linea kentzea ahalbidetu dute. Erabateko 'txapuza'».

Prentsaurrean azaldu zuten, argi dute A3 linea indartu eta bultzatu beharreko autobus zerbitzua dela: «oso zerbitzu berezia egiten duen autobusa da.

Astigarraga lotzen du Ospitaleekin, Miramonekin, Unibertsitateekin eta Antiguako auzoarekin (Ogasuna, Trafikoa, Erregistroa, hondartza...). Gainera, erabiltzaile gutxi izan arren, kopuruak gora egiten jarraitzen duen azken hilabeteetan. Eta gorakada hori egon arren, zerbitzua kentzea erabaki dute. Gainera, ez da komunikazio kanpainarik egin herrian A3 zerbitzua gehiago ezagutarazteko: ikasleei, langileei, gaixo edo adinekoei... Donostialdeko herri bakarra izango da ospitaleekin loturarik izango ez duena. Guztia, Udalaren erabateko pasibitatea medio».

### Mozioa, Udalean

Udalan mozio bat aurkeztuko dutela jakinarazi zuten: «mozioan eskatuko dugu Udalak Diputazioari eskatzea A3a bere osotasunean berriz ere martxan jartzea. Mugikortasun Batzordea berehala deitzea ere eskatuko dugu».

### «Sagardotegietara joateko autobus zerbitzu berria jarri dela prentsan jakin dugu»

Bestalde, azaldu zuten, prentsan jakin dutela sagardotegietara dijoazen pertsonentzako autobus zerbitzu berriak jarri direla: «Udala ere, gardentasun ezaren marka guztiak ari da hausten. Eskuardean dugun informazioaren arabera, Udalak



EH Bilduk A3 lineako erabiltzaileen datuak eman zituen. Ikusteko: 'www.kronika.eus'.

17.000 euro ordaindu beharko ditu zerbitzu gehigarri honengatik: 5.000 Behemendiri sagardotegietara joan-etorria egiteko, eta 12.000 Lurraldebusi, astelehenetik ostegunera, gaueko bi zerbitzu eskaintzeagatik. EH Bildutik Behemendiri zerbitzua ordaintzea begi onez ikusten dugu, baina onartezina iruditzen zaigu Lurraldebusi 12.000 euro ordaindu behar izatea, beste aldetik, astigartarrentzako diren zerbitzuak murrizten diren bitartean».

EH Bilduk dio, argi dagoela EAJren lehentasunekin ez datozela bat: «gure ustez, lehenago

dago herriko langile, ikasle eta adinduentzako garraio publikoa babestu eta ahal den neurrian indartzea, sagardotegietara dijoazen autobus zerbitzuak martxan jartzea baino».

### Proposamena, Santiomendirako

Bestalde, EH Bilduk jakinarazi zuen, Santiomendi eta herria lotuko dituen garraio zerbitzu egonkorra martxan jartzeko proposatuko duela: «kostea 5.000 eurokoa izango da, urte osoan, abuztuan, izan ezik. Egunean jaisteko eta igotzeko bidai bana izango litzateke».

■ GURUTZETA SAGARDOTEGIA

# Tradizioak eta esperientzia berriek bat egiten duten festa, txotxa

Esperientziak eta berrikuntzak bat egiten dute Gurutzetan. 100 urtetan, hiru belaunaldi aritu dira sagardogintzan lanean, eta jakitura eta goxotasun hori, familia

giroa nabariak dira bertan. Berrikuntzei esker, berriz, kalitatezko sagardoa eta bisitariari egokitutako esperientzia berriak eskaintzen dituzte.



Gurutzeta sagardotegiko txotx denboraldiko ekipoa, upategian: Jon Odriozola, Javier Arrizabalaga, Jone Iriberrri, Ioritz Fernandez, Agurtzane Goñi eta Eto Gomes zutik; Amaia Zuaznabar, Iñigo Esnaola, Axier Mendizabal eta Joxe Angel Goñi, makurtuta.

TXOTX denboraldia irekita, lanerako prest eta gogotsu dago Gurutzeta sagardotegiko ekipoa. «Gurutzetan txotx denboraldia oso garrantzitsua da, eta elkarlanak eta talde lanak inportantzia hartzen du». Horregatik, betiko menuaz gain, kazuelak ere prestatzen dituzte enkarguz, eta 22 euroko menua ere aukeran daukate. Era berean, asteazkenetan otxoteen ikuskizuna ere eskaintzen dute. Guztia, familia eta lagunarteko giroa sortzen laguntzeko. «Lagun arteko jardun horretarako aproposa da gurea».

**Baita urte osoan ere**

Txotxaz gain, botilako sagardoarekin ere egiten dute lan Gurutzetan, sagardoaz urte osoan gozatu ahal izateko.

Zentzu honetan, sagardogintza asko aldatu da. «Dena eskuz egitetik, ia dena makinaren bitartez egitera pasa

Kortxo berezia jarri dio Gurutzetak botilari, sagardoa edalontzira jaurtitzen laguntzeko eta sagardoaz bete-betean gozatzeko.

gara». Eta sagardoa bera ere asko aldatu da. «Askoz edan errazagoa egiten dugu orain, eta kalitate handiko sagardoa egiten dugu gaur egun, instalakuntza berriei eta enologiak eskaintzen dituen teknikei esker».

Hain zuzen, berrikuntza horiek eta kalitatea nabarmentzeko 'txapela' jarri diote hainbat sagardogilek, Gorenak markaren alde eginenez, eta baita Gurutzetak ere. Horrez gain, kortxo berezia jarri dio Gurutzetak botilari, sagardoa edalontzira jaurtitzen laguntzeko, eta sagardoaz bete-betean gozatzeko. Urte osoan saltzen du-

te sagardoa botilan, sagardotegian bertan, webgunearen bidez, edota eskatutako tokira bertara garraiatuta, eta eskaintzak ere badauzkate.

**Tradizioaren ondarea, esperientzia berrien oinarri**  
Tradizioak eta esperientzia berriek bat egiten duten garaia, ordea, txotx garaia da.

Gurutzetak aukera ematen du historia hori ezagutzeko eta horrela, sagardoaz gehiago gozatzeko. Esperientziak bizitzeko aukera ematen du.

Batetik, bazkalaurretik sagardo kata edo apurua egiten ikasi daiteke. Enologo

baten laguntza izaten da, eta txotxaren historia bera ezagutzeko aukera izaten da. Izan ere, sagardo probaketatik sortu zen txotxa; sagardozaleek egiten zuten denboraldi hasieran, sagardorik eta kupelik gustokoena aukeratzeko. Horrela gogoratzen dute Gurutzetan ere: Largaene baserriko Joxe Mari Urreagak, Sansonategiko Joxepa Inaxi Aranbururekin ezkondata jarri zuen mar txan Gurutzeta, 1900 inguruan. Orduan, «kupelari kanilla sartu eta denentzako irekitzen zen, eta bukatu, eta beste sagardotegi bat irekitzekoak zirenean, alguazilek bandoa jotzen zuten».

Beste bi esperientzia ere badaude, aukeran: sagardotegiko plater tradizionalak prestatzen ikastekoa, eta gaztandegi bat bisitatzekoa. Tradizioa dastatzeko aukera, azken batean. ||

**ORDUTEGIA**

- Astelehenetik larunbatera irekita, eguerdi eta gauetan.
- Ilandetan itxita.
- Apirilaren 16tik aurrera, ostegun gauetan eta ostiral eta larunbat eguerdi eta gauetan ere irekita, maiatzaren 28 arte.

**KONTAKTUA**

- Oialume Bidea 63  
20115 Ergobia Astigarraga.
- Erreserbak: 943 55 22 42  
gurutzeta@gurutzeta.com
- www.gurutzeta.com

**ESKAITZA BEREZIAK**

- 22€KO MENUA, ASTELEHEN, ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN
- ASTEAZKEN GAUETAN "OTXOTEA" KANTUZ (otsailaren 10ean hasi eta apirilaren 13 arte, asteazkenero)
- BETIKO MENUA EGUNERO (Txorixoa, bakailao tortilla, bakailao frijitua piper berdeekin, txuleta eta ohiko postrea)
- BAKAILAO KAZUELAK ERE ESKAINTZEN DITUGU. (salsa berdean eta tomatearekin) enkarguz.

**ESPERIENTZIAK**

- SAGARDOAREN HISTORIA, KATA GIDATUA ENOLOGOARKEIN, ETA TXOTXA, MENU TRADIZIONALAREKIN:  
**Iraupena:** 12:30etan hasita, 45 minutu. Ondoren, bazkaria.  
**Partaide kopurua, gehienez:** 25 pertsona (gutxienez 10).  
**Noiz:** ostegun, ostiral eta larunbat eguerditan, aurrez erreserba eginda.  
**Prezioa:** 45 euro (esperientzia eta sagardotegi menua).
- SAGARDOTEGIKO PLATER TRADIZIONALAK PRESTATZEN:  
**Iraupena:** 12:30etan hasita, 45 minutu. Ondoren, bazkaria.  
**Partaide kopurua, gehienez:** 25 pertsona (gutxienez 10).  
**Noiz:** ostegun, ostiral eta larunbat eguerditan, aurrez erreserba eginda.  
**Prezioa:** 45 euro (esperientzia eta sagardotegi menua).
- GAZTANDEGIRA BISITA:  
**Iraupena:** Ordu 1.  
12:00etan, sagardotegian.  
**Partaide kopurua, gehienez:** 8 pertsona.  
**Noiz:** ostegun, ostiral eta larunbat eguerditan, aurrez erreserba eginda.  
**Garraioa:** Sagardotegitik gaztandegira, eta bueltan sagardotegira, bazkaltzera.  
**Prezioa:** 50 euro (esperientzia eta sagardotegi menua).

## ■ SAGARDOETXEA



Museo Sareko ordezkari ezberdinak egon ziren Fiturren egindako aurkezpenean.

# Sagardoetxea Fiturren izan da, Euskadiko gastronomia bisitariei ezagutarazteko asmoz

Joxe Mari Alberro zuzendariak parte hartu zuen Euskadiko Museo Enogastronomikoen Sarearen aurkezpenean.

FITURREN, Madrilan izan berri da Joxe Mari Alberro, Sagardoetxeko zuzendaria. Euskadiko Museo Enogastronomikoen Sarearen aurkezpenean hartu zuen parte. Sare honen helburua da, sagardoa, ardoa, txakolina, idiazabal gazta, gozoa eta antzeko euskal produktu gastronomikoak ezagutaraztea. Eta horrekin batera, hauekin lotutako usadioak, kultura eta ohiturak bisitariei transmititzea.

Museo sareak kultura eta gastronomia proiektuetan egingo du lana: «helburua da, gure lurreko gastronomia produktu tipiko hauen atzean ezkututzen diren euskal funtsa eta ohiturak bisitariei helaraztea, euskaldunak hobekien identifikatzen gaituztenak baitira». Bide horretan, urte hauetan hainbat esperientzia turistikoko sortu dira, tartean, Sagardoa eta Idiazabal Gaztaren ibilbidea. Orain, sarea

sortuta, gastronomia-propotasamen berriak eskainiko dizkiote bisitariari; gainera, museotara egindako bisitak uztartu ahal izango dituzte beste esperientziekin, tartean, sagardotegietara bisitak eginez.

Bestalde, eskuorri bat ere egin dute, Euskadiko Museo Enogastronomikoen Sarean dauden museoak biltzen dituen; bertan daude, eskaintza turistikoen inguruko informazio ezberdinak. ■

## ☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

### Petritegi sagardotegiko

#### Jose Joaquín Otaño eta Sagardo Berriaren Eguna

Jose Joaquín Otaño zenbait azalpen eman nahi ditu, Sagardo Berriaren Eguna dela eta, egon litekeen nahasmenaren aurrean. Txotxaren Irekiera ekitaldia egiteko sagardotegiaren aukeraketa rotatiboa izan da hasieratik; beraz, ez gaude gauza berri baten aurrean. 1994 urtean, bere etxeko atea ireki zituen lehenengo aldiz Jose Joaquín Otaño, Txotxaren Irekiera ekitaldia bertan ospatzeko; herriko sagardogileek eta Astigarragako Udalak hala eskatu zioten. Ekitaldi hau, Astigarragako sagardotegi ezberdinetan era rotatiboan egiteko jai

zen, honela, herria bultzatuz, Astigarragari eta festari izaera berezia emango ziolakoan.

Sagardun Patzuergoa sortu aurretik, irekiera ekitaldi hau behin baino gehiagotan egin da Petritegi sagardotegian, ekitaldia bere sagardotegian ospatzeko beste hautagairik ez zegoelako. Eta beti, beste sagardogileek eta Astigarragako Udalak hala eskatuta.

2003 urtean Sagardun Patzuergoa sortu zen. Petritegi sagardotegia hasieratik izan da Patzuergoko partaide, beste sagardotegi, herriko kultur elkarte eta Udalarekin batera. Beste zenbait lanen artean, Patzuergoari eman zitzaion Txotx Irekiera

ekitaldiaren (gaur egun Sagardo Berriaren Eguna) antolatze ardurak. Ekitaldiaren izaera rotatiboa mantendu zen. Honen adibide dugu 2003, 2007, 2014 eta 2015 urteetan, eta inolako arazorik gabe, Astigarragako beste sagardotegi batzuetan festa hau ospatu izana. Gainerako urteetan, berriz ere, Petritegi izan zen ekitaldiaren egoitza, arrazoi ezberdinengatik, beste hautagairik ez zelako aurkeztu. Jose Joaquín Otaño Astigarragako festa honen izaera eustearen alde egon da beti: festa rotatiboa eta herrian bertan izatea.

Jose Joaquín Otaño Goikoetxea (Petritegi Sagardotegia)

## ■ UDALA AURREKONTUA

# Herritarrekin azken lau bilerak, aste honetan

Bilera guztiak 19:00etan hasiko dira

AURREKONTUAK aztertze asmoarekin, auzoz auzo bilerak egingo ari da Gobernu Taldea. Bederatzi bilerarako hitzorduak jarri zituzten, eta azken lauak aste honetan bertan izango dira. Santiagomendi, Oialume, Ermañan eta Arrobitxuloko bizilagunen txanda izango da, asteleheneretik ostegunera, 19:00etan. ■

**Otsailak 1**, Plaza-etxen: Santiagomendiko biztanleak.

**Otsailak 2**, Oialume tabeman: bertako biztanleak.

**Otsailak 3**, Ermañan tabeman: bertako biztanleak.

**Otsailak 4**, Arrobitxuloko lokalean: bertako biztanleak.



Alorrean bi lagunentzako otordua irabazi du Joxe Mari Urretabizkaiak.

## ■ TXOTX DENBORALDIA PINTXOTX

### Joxe Mari Urretabizkaiarentzat, bi lagunentzako otordua

Txotx denboraldiaren hasierarekin bat eginda, Pintxotx lehiaketan parte hartu zuten Astigarraga eta Hernaniko zenbait tabernek. Pintxo onena herritarrek aukeratu zuten, emandako botuekin. Eta herritar horien artean ere, zozketatu zen 2 lagunentzako otordua. Astigarragako Alorrean arazo zen, eta Joxe Mari Urretabizkaiak irabazi zuen. ■

## ■ UDALA ETXEBIZITZAK

### Alokairurako etxebizitza libreer zerrendak ikusgai daude

Dirulaguntza emango die Astigarragako Udalak etxe hutsak erregimen sozialean alokatzen dituztenei. Azaldu dutenez, behin behineko zerrendak argitaratu dituzte, eta ikusgai daude Udala iragarki taulan eta [www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus) web orrian. Otsailaren 9ra arte zabalik dago erreklamazio epea. ■

## ■ ZINEA

### 'The snow queen', gaur

*The Snow Queen* pelikula izango da ikusgai haurrentzat gaur Kultur Etxean. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da. Sarrerak 2 euro balioko du. ■

## ■ PRESO ETA IHESLARIAK

### Kontzentrazio etzi, J. Barandiaran plazan

Asteleheneroko hitzorduari hutsik egin gabe, kontzentrazioa deitu dute etzi, 20:00etan Joseba Barandiaran plazan, *Preso eta iheslariak* etxera lelopean. ■

## ■ HITZALDIA KIROPRAKTIKOA

### Osasuna eta kiropraktika, asteartean

Xabier Mendiaraz kiropraktikoak hitzaldia emango du astelehenean Galtzaurren, Astigarragako jubilatuen biltokian. Osasuna eta kiropraktikak duten erlazioari buruz ariko da, arratsaldeko 18:00etan hasita. Hitzaldia debalde izango da. ■

■ FUTBOLA

# Puntuak etxean uzteko aukera gaur, Mundarrok

Etxean jokatu dute gaur Mundarro-Petritegiko gorengo mailako mutilek, Lengokoaken aurka. 16:00etan, Zarkumendegin.

ETXEAN jokatu dute asteburu honetan Mundarroko maila goreneko mutilek. Lengokoak izango dute aurkari, eta arratsaldeko 16:00etan hasiko da, Zarkumendegin.

Garaipenaren hiru puntuak etxean geratzea izango dute helburu moreek, berriz ere, sailkapenean azkena dagoenaren aurkako partidu honetan. Urte berri honetako partidu guztiak irabazita, Mundarroko mutilak laugarren postuan daude orain.

«Partidu eroa», aurrekoa

Indartsu zapalduko dute zelaia Mundarroko mutilek, aurreko partidua irabazi ondoren. «Partidu eroa» izan zela onartu du taldeak. Hasi eta berehala aurreratu ziren moreak markagailuan Beñat Mendibururen golari esker, baina partiduak aurrera egin ahala, Donostiako Eas08 indarra hartzen joan zen. Azkenean, gorabehera askoren ondoren, Mundarro gailendu zen 3-4. ■



Zarkumendegin jokatu dute gaur Mundarroko mutilek Lengokoaken aurka.

■ TXIRRINDULARITZA

# Otermin eta Senperena, Gipuzkoako txapelkunorde

Gipuzkoako Kluben arteko txapelketako finala izan zen igandean Anoetako Belodromoan, eta astigartarrak bigarren gelditu ziren.

GIPUZKOAKO Kluben arteko txapelketako finala jokatu zen Donostiako Anoetako Belodromoan, eta bertan egon ziren Victor Alvaro Construcciones-Donosti Berri taldea osatzen duten bi astigartarrak, Tomas Otermin eta Telmo Senperena.

Garaileak izateko faboritoen artean zegoen talde donostiarra, baina azken frogan azkarragoak izatearen ondorioz, Asturiasko Selekzioak bereganatu zuen garaipena.

Emozioz beteriko finala

Azkartasun, Scracht, Danesa, 500 metro... probak egin ondoren, aurreneko bien arteko

Gipuzkoako bakarkako txapelketa gaur eta bihar egingo da.

desberdintasuna puntu bakarrean geratu zen, beraz, Taldeka Segitzeko proban erabaki zen dena. Horrela, Asturiasko Selekzioak garaitu zuen Donosti Berri taldea 80 zentesimako tarteagatik, eta Tolosako Limousin taldea gelditu zen hirugarren.

Juniorretan, hirugarren Victor Alvaro Construcciones-

Donosti Berri taldeak ere zorte ona izan zuen junior mailan. Urko Senperena astigartarrak, Hernani eta Donostiako beste kide batzuekin, osatzen duen taldea ere fin ibili zen eta podiumeko hirugarren postura igotzea lortu zuen. Bere aurretik, Tolosako Limousin bigarren, eta Aviron Bayonnais garaile.

Pistako denboraldiaren bukaera, gaurtik

Pistako denboraldiari bukaera emateko, Gipuzkoako Bakarkako txapelketa egingo da gaur eta bihar, 16:00tatik aurrera. ■

■ SASKIBALOA

# Logroñora gaur, neskek

Campus Prometeren aurka jokatu dute neskek gaur 20:00etan, Logroñon.

LOGROÑORA bidaiatu dute Mundarroko neskek, eta bertan jokatu dute Campus Prometeren aurka, iluntzeko 20:00etan hasita.

Lehia garrantzitsua da gaurkoa bientzat; izan ere, Campus Promete bosgarren dago sailkapenean, eta Mundarro, zazpigarren, 2 puntuko

desberdintasunarekin.

Gizonak bihar, etxean

Etxean jokatu dute, ordea, gizonetakoek. Mundarro-La Salle B-k gaur jokatu du, 16:00etan Kiroldegian; eta Mundarro-La Sallek bihar, arratsaldeko 18:00etan, La Sallen. ■

■ ESKU PELOTA

# Hiru partidu, gaur

Andoainen, Oiartzunen eta Orion jokatu dute astigartarrak.

ESKU pelotako hiru partidu jokatu dira gaurko egunez, denak eskuz binaka. Lehenengo, nagusien mailan, Gazteluren aurka lehiatuko da Mundarro, goizeko 10:45etan hasita, Andoainen. Goizeko 11:00etan hasiko da bigarren

partidua, nagusien mailako hau ere. Orion izango da, bertako taldearen aurka lehiatuko dira astigartarrak. Azkenik, arratsaldeko 16:15etatik aurrera, infantilen mailako bikoteak Oiartzunen jokatu du Oiarpe taldearen aurka. ■

■ KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA

Erreg. Preferentia	Mundarro-Lengokoak	Zarkumendegin	Gaur 16:00
Ohorezko jubenila	Ostadar-Mundarro	Hibelinen	Gaur 11:15
Jubenil 1go maila	Basberri-Mundarro	Garmendipen	Bihar 16:30
Ohorezko kadetes	Mundarro-Lengokoak	Zarkumendegin	Gaur 12:00
Kadetes 1go maila	Aretxabaleta-Mundarro	Ibarran	Gaur 11:00
Ohorezko infantila	Euskalduna-Mundarro	Ubitarten	Gaur 10:45
Infantila 1go maila	Internacional-Mundarro	Matgoxotegin	Bihar 13:30
Infantil txikiak	Mundarro-Egoibar	Zarkumendegin	Gaur 10:00

SASKIBALOA

2. Euskal Liga esk.	Campus Promete-Mundarro La Salle	Logroñon	Gaur 20:00
1go probintziala mutiak	Mundarro La Salle-Taldea Orbea Taberna	La Sallen	Bihar 18:00
2. probintziala mutiak	Mundarro La Salle-Zarauz Sharks	Astigarragan	Gaur 16:00
Junior mutiak	Petritegi Mundarro-Zest 98	La Sallen	Bihar 16:00
Kadete mutiak	Petritegi Mundarro-Zest 2001 ZXE	Astigarragan	Gaur 11:15

ESKU PELOTA

Nagusiak, Binaka	Getzeleku-Mundarro	Andoainen	Gaur 10:45
Nagusiak, Binaka	Orio-Mundarro	Orion	Gaur 11:00
Infantila, Binaka	Oiarpe-Mundarro	Oiartzunen	Gaur 16:15

**KRONIKAK KAZETARI-KOLABORATZAILEAK BEHAR DITU**

**Bidali Curriculum Vitae-a, otsailaren 7ra arte:**

- kronika@kronika.eus
- Dobera Euskara Elkartearen Larramendi 11 beheko 20.120 HERNANI

**ESKATZEN DA:**

- / Kazetaritza, Komunikazioa edo antzeko ikasketak izatea.
- / EGA izatea.

**ISALORATUKO DA:**

- / Baitarako izatea.
- / Baitarako elkarte, talde eta abarren ezagutza izatea.

**MAIZTASUNA:**

- / Kolaborazioak hilean behin egin behar dira, gutxi gorabehera. Ordaindu egingo dira.

## GOIZUETA UDALA

# «Oso positiboa iruditzen zaigu, herritarrek dituzten beharrak asetzeko»

Gasolindegi bat irekitzeko proiektua aurkeztu zen duela bi aste herritarren aurrean. Udalak proiektuari bere babesa adierazi nahi izan dio «ez duelako zalantzarik proiektu interesgarria dela».

HERRIAN gasolindegi bat irekitzeko intentzioa plazaratu zuten duela pare bat aste goizuetar talde batek, eta 100 herritarretik gora bildu zituen bilera batean aurkeztu zuten proiektua. Ideia da kooperatiba bat sortzea gasolindegiaren proiektua aurrera eraman ahal izateko.

Herritarren onarpena ikusi

zuten antolatzaileek bileran, eta, ildo beretik, Goizuetako Udalak ere «babesa» azaldu nahi izan dio proiektu berri honi. Izan ere, «oso positiboa iruditzen zaigu, herritarrek dituzten beharrak asetzeko beraiek antolatu eta beraiek sortzea euren bide propioak», adierazi du Udalak bere web-gunearen bitartez.

Udalak «laguntzeko konpromisoa» berretsi du.

Gainera, kooperatiba bera martxan jarri izana «txalogarria» iruditzen zaie Udaleko

kideei, baina «gasolindegia sortzeko oraindik ere zehaztasun eta zeregin asko dagoela» aipatu du Udalak. Horregatik, «laguntzeko konpromisoa» berretsi du.

**Egoera aztertzea, datorren pausua**

«Gasolindegiak herritarren interesa piztu» duela onartu zu-

ten antolatzaileek aurreko astean, eta «positiboki» baloratu du Udalak hau ere.

Beraz, hemendik aurrera pauso berriak emango direla jakinarazi du taldeak. Hurrengo, izango da bideragarritasuna aztertzeko herritarrei inkestak egitea izanen da, eta emaitzak jasota, plan bat eginen dute. ||

## GOIZUETA FUTBITO TXAPELKETA

# Txapelketa azkarra gaur, afari eta guzti

Arratsaldeko 16:30etan hasita, 20 minutuko partiduak jokatu-ko dira. Ondoren, afaria eginen dute parte hartzaileek.

FUTBITO txapelketa azkarra antolatu du Umore Ona elkarteak gaurko. Arratsaldeko 16:30etatik aurrera, 20 minutuko partiduak jokatu-ko dituzte parte hartzaileen artean.

Ondoren, indarra berreskuratuko dute Umore Ona Elkartean egingo den afarian. Afarira joan nahi zutenek, urtarrilaren 25a arte izan

Txapelketan izena emateko aukera izanen da gaur, baina ez afarira.

zuten izena emateko aukera.

**Izenematea, 3 euroan**  
Aurrez izena eman ez dute-

nek ez dute afarira joateko aukerarik izanen, baina txapelketan parte hartzeko aukera, bai. Jokalari horiek, futbito partiduak hasi aurretik apuntatzeko aukera izanen dute.

Partiduak taldeka izanen dira, baina parte hartzea pertsonako ordainduko da, hau da, taldeko bakoitzak 3 euro jarri behar izango ditu. ||

## EREÑOTZU SANTA AGEDA

### Santa Ageda bezperan etxez etxe ibiltzeko zita

Urtero bezala, Ereñotzuko Ur Mia elkarteak Santa Ageda bezperako zita jarri du. Osteguneari arituko dira kantuan etxez etxe, arratsaldeko 16:30etatik aurrera. ||

## GOIZUETA INAUTERIAK

### Inauteriak, datorren igandetik aurrera

Otsailaren 7tik 13ra ospatuko dira Goizuetan inauteriak. Ekintza asko biltzen dituen programa prestatu dute inauterietan iraunen duten lau egunetarako, 7, 8, 9 eta 13rako, alegia. ||

## GOIZUETA ERREMONTA

### Urriza-Zubiri gaur, Ezkurra-Aizpururen aurka

Galarretan jokatu du gaur Urriza-Zubiri bikoteak, Ezkurra-Aizpururen aurka. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da, eta 40 tantotara izango da partidua. ||

## GOIZUETA ARETO FUTBOLA

### Gamon Izadi-Jazzen aurka, bihar eguerdian

Aurreko asteburuko partiduan, Tolosako Horkonpon AFT taldea 10-4 garaitu ondoren, 12. jardunaldiko partidua jokatu du Umore-Onak bihar eguerdian. Gamon Iza-Jazz taldea izango du aurkari, eta 12:00etatik aurrera jokatu dute, Eskolan. ||

## GOIZUETA ESKU PELOTA

### Asteburuko partiduak

Alebinak: Pilotajauku A-Aitzo Salaberria/Beñat Apezetxea (Umore Ona). Altsasun. Gaur 10:00etan.

Jubenilak: Salaberria/Mariezkurrena-Carnabal/Cordon. Donezteben. 11:00etan.

Euskal Liga: Apezetxea/Aizkorbe (Umore Ona)-Lagun Onak. Ortuellan. 12:00etan. ||

### Olaizola II-Urrutikoetxeak eskuz binakako finalaurdena, gaur Gasteizen

Gasteizen jokatu dute gaur Olaizola II eta Urrutikoetxeak eskuz binakako txapelketako finalaurdena. Xala eta Rezusta izango dituzte aurkari, 17:45etatik aurrera, Olgeta pelotalekuan. ||

## ESKU PELOTA

# Josetxo Ezkurra memorialean, izenematea

Datorren igandera arte, bihar zortzi, izanen da izena emateko aukera. Txapelketa martxoaren 6an hasiko da.

JOSETXO Ezkurraren omenezko XVI memorialeko antolatu du, beste behin, Erreka K.E.K. Eta parte hartzeko izenematea irekita da jada, otsailaren 7ra arte, bihar zortzi. Txapelketa martxoaren 6an hasiko da, eta bukaera ekaineko azkeneko astean izanen da.

Izenemateak posta elek-

tronikoz eginen dira [salaae@gmail.com](mailto:salaae@gmail.com) helbidean, eta bertara bidali behar da izenemate orria, telefono zenbaki batekin eta posta elektronikoko helbide batekin.

**Txapelketan, sei kategoria**  
Txapelketa kanporaketa erara jokatu da, eta igande goize-

tan izango dira partiduak. Sei kategoria bereiziko dira, adin tarteak kontuan izanik: umeak, 2006-2007 urtetan jaiotakoak; kimuak, 2004-2005 urtetakoak; haurrak, 2002-2003koak; kadeteak, 2000-2001 urtekoak; gazteak, 1998-1999koak; eta 1997tik behera, helduak. ||

ARANO INAUTERIAK

# Zomorroek puxka bilduko dute gaur, baserriz baserri

Gaur ospatuko dituzte karnabalak aranotarrek. Beti bezala, zomorroak 08:30etan elkartuko dira Suron, eta ondoren, baserriz baserri ibiliko dira puxka biltzen.



Trikitilariek lagunduta bilduko dute zomorroek puxka auzoz auzo eta baserriz baserri.

KARNABALAK ospatuko dituzte gaur aranotarrek, eta urtero bezala, plan borobila antolatu dute gaurko egunaz disfrutatzeko.

Aurreneko zita goizean goizerako jarri dute: 08:30etan elkartuko dira zomorro guztiak Suron, eta bertatik abiatuko dira puxka bila, auzoz auzo eta baserriz baserri: Suron barrena ibiliko dira aurrena, gero, Arranbide zeharkatuko dute, Benta Berrira joanen dira hurrena, Beheko Herri bixitatu dute, ondoren, eta herrian bukatuko dute buelta. Bueltaxka osoa Izer eta Alabier trikitilarien hotsek lagunduta egingo dute.

Eguerdiko 15:00ak aldera

bukatuko dute herritik buelta zomorroek, eta ondoren soziedaderra bazkaltzera joanen dira elkarrekin. Bapo bazkaldu eta bukatzean, kantu saioa egingen dute soziedadearan bertan.

**Poteoa, arratsaldean eta herri afaria eta kontzertua, gauean** Bazkaldu ondoren, festek au-

Herrian barrena ibili ondoren, soziedadearan bazkalduko dute zomorroek.

rrera egingen dute. Arratsalde- iluntze partean, poteoa egingo-

Eguna borobiltzeko, Garik eta Iñakik kontzertua eskainiko dute.

da herrian zehar, trikitilarien musikak lagunduta.

Ondoren, afari herrikoa antolatu dute. Herritar guztiei irekita egongo da eta Aranoko soziedadearan egingo da.

Karnabaletako egun potolari bukaera emateko, herri afariaren ondoren musikak jarriko du giroa Aranon, Garik eta Iñakik eskainiko duten kontzertuarekin. ||

EREÑOTZU GOIZ PASAK URUMEA BAILARAN



## Ereñotzutik Hernanira bueltaxka, bihar

GOIZ pasak Urumea bailaran izenburupean, bueltaxka antolatu du Ereñotzuko Olak auzo elkarrekin biharko.

Ereñotzutik Hernanira egingo dute oinez, eta Ereñotzuko parkean jarri

dute irteerako zita goizeko 9:30etan. Goiz osoa oinez pasa ondoren, Ereñotzura egingo dute buelta. Horretarako, autobuz zerbitzua jarri dute, espresuki, eguerdian buelta egin ahal izateko.

**Ereñotzuarrei parte hartzeko deia**

Olak auzo elkarrekin esan duenez, hurrekin egiteko moduko buelta omen da, beraz, ereñotzuar guztiak animatzen dituzte bertan parte hartzera. ||

## ZUBI-LANA

Kronikak tarte bat eman nahi die lan bila dabiltzan herritarrei eta lana eskaintzen dutenei, debalde. Lan bila dabilen herritarrek bertan mezu bat jarri nahi badu, astero jakinarazi beharko dio Kronikari. Aldiz, lana eskaintzen dutenek, iragarki merke gisa argitaratu beharko dute lan eskaintza; eta Kronikak, Zubi-Lana txokoan argitaratuko die, debalde.

Bi kasuetan, ostiral eguerdia baino lehen, iragarkiak [lan@kronika.eus](mailto:lan@kronika.eus) helbidera bidali behar dira edo 943 33 08 99 telefonora deituta azaldu.

**ESKAINTZAK**

**LOGIKALINE** enpresak **TELEOPERADORATARAKO 2 LANPOSTU** eskaintzen ditu. Lana Abaltzisketan. Kontratua: 6 hilabetekoa, hasteko, eta, gero indefinidoa. Euskara, gaztelania eta ingelesa. Lanaldi osoa. Bidali c.v. [info@logikaline.com](mailto:info@logikaline.com) edo deitu 625 705 008

**LAN-BILA**

**Esperientzia haundiko transportista** lan bila. Mota guztietako karnetak dauzkate eta bidaiari nazionalak eta internazionalak egiteko pronto nago. Deitu: 685 708 805

**30 urteko esperientzia duen emakume sukaldari hernaniarra** naiz eta lan bila nabil. Elikagaien manipulaziorako karneta ere badaukat. Deitu: 630 033 500

**Lan bila nabil.** Kontserje lanetan eta obretan aritua naiz. Edozein lanetan aritzeko prest nago. Deitu: 608 944 782

**Hernaniarra lan bila.** Eraikinen mantenimenduan (elektrizitatea, iturgintza...), banatzaile moduan (B eta D gida-baimenak dauzkate), eta zabor kudeaketan formazioa eta esperientzia dauzkate. Deitu: 616 886 660

**Gaixoak zainduko nituzke, egunez edo eta gauez, etxean edo ospitalean.** Deitu: 674 313 491

**Geriatría-laguntzaile** den emakume batek nagusien edota haurren zaintzan, garbitasunean, pisu-kamarera bezala lan egingo luke. Deitu: 620 084 633

**Soldadore-muntatzaile lanetan, herriritzan eta galdaragintzan ibilitako gizona** lanerakoprest. Deitu: 669 910 743

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte. Lan-taldea: A. Arbelaitz, E. Zeberio, B. Los Arcos, K. Garmendia, J. Lurrarrendi, L. Rekondo, L. Goñi, M. Ramirez de Alda eta A. Moreno. Egoitza: Larramendi 11(Hernani)  
☎ 943 33 08 99 (Hernani) eta 688 660 714 (Astigarraga). Eposta: [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus), [astigarraga@kronika.eus](mailto:astigarraga@kronika.eus), [urumea@kronika.eus](mailto:urumea@kronika.eus) eta [publi@kronika.eus](mailto:publi@kronika.eus). Lege gordailua: SS-400/2014 ISSN: 2341-2976

☎ **TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 943 55 52 77 (Astigarraga) | **UDALTAINGOA:** 092 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:**  
**Garayar:** 943 556658, **Areizaga:** 943 452708, **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 (Hernani)  
943 33 56 44 (Astigarraga) | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103  
☎ / **Egunez:** Gomez Kale Nagusia 14, Hernani **943 554892** / **Gauz:** Urrutia Etxeberri 1 **943 557738** (Hernani)

**EGURALDIA**  
**GAUR** Egunaren hasieran, laino gubi egongo dira zeruan, eta eguzkitsu geratuko da. Gero, lainotuz joango da pixka bat, arratsaldean zeru estali arte, baina giro onarekin jarraituko dugu. **Min.6° / Max.13°**  
**BIHAR** Lainotuta egongo da zerua, eta goizean, euria ere egingo du. Gero, ateritako dio eguerdi partean, baina zaparradak botako ditu berriro, arratsaldean. **Min.8° / Max.13°** (euskaime)



## INAUTERIETAKO KARTELA

# «Margoaren kontzeptuarekin jolastea zen nire helburua»

Inauteriak hasiko dira ostiralean, eta hori iragartzeko kartel lehiaketaren irabazlea izan da Rubén Lucas murtziarra.

OTSAILAREN 5etik 9ra ospatuko dira inauteriak Hernanin, eta hori iragartzeko kartel lehiaketa antolatu zuen Udalak. Bigarren urtez, Rubén Lucas murtziarraren kartela izan da gairaila: «egia esan ez nuen espero berriz ere iazko zortea izango nuenik; Hernaniko herriari eskerrak eman nahi dizkiot berriz ere aukera hau emateagatik».

### Espainiako proiektu askoren egilea

Lucasek diseinatzaile lanak egiten ditu, baina berak ez du bere burua «diseinatzaile» gisa deskribatzen, nahiago du esan «paper-pegatzailea» dela. Azkenaldian proiektu dexente aurkeztu ditu lehiaketa desberdinetan: «Espainia mailan, proiektuak prestatzen aritu naiz azkenaldian, eta egia esan zorte handia izaten ari naiz

Rubén Lucas murtziarrak lehiaketa irabazten duen bigarren urtea da.

«Inauterietako mozerroan oinarritzko elementua da margoa».

eta nire lanek kontatu dute jardura batzuk iragartzeko», azaldu du Lucasek.

### Teknika digitalarekin egindako kartela

Aurtengo inauteriak iragartzen dituen kartelean bi elementu nagusitzen dira, argi eta garbi: antifaza eta kolore biziak dira.

«Margoaren kontzeptuarekin jolastea zen nire helburua. Izan ere, nire ustez inauterietako mozerroetan oinarritzko elementua da», dio egile murtziarrak. Aurreneko ideia buruan zuela, paperean nola jarri pentsatu behar zuen, eta azkenean «teknika digital bat» aukeratu zuen horretarako.

### Inauterien zalea

Diseinatzaile murtziarra inauterien zalea dela onartzen du: «Noski ospatzen ditudala inauteriak, gainera, garrantzitsua da atsedean egunak hartzea eta maite duzun jendearekin pasatzea. Horrez gain, pertsonalki uste dut behar-beharrezkoa dela jai hau, bereziki, hainbestentzako garai txarra izaten ari denean. Askotan esaten den bezala: irribarre egitea munduaren aldaketan laguntzeko modu egokia da». ||



Antifaza da Rubén Lucasen karteleko elementu nagusietako bat da.

## IRAGARKI MERKEAK

Pisua (VPO) eta garajea 148.000€tan Perkaiztegi Kalean. Deitu (Miren): 670 42 26 37  
**ETXEKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak)  
DIRUZ LAGUNDUA

**ELIZATXO**  
**Ikastola**

Matrikula: Urtarrilaren 25etik Otsailaren 5era  
Non: **Elizatxo 9** ☎ **943 557224** (HH-LH)  
Ordutegia: 9:00 - 12:30 eta 14:30 - 16:30

[www.elizatxoikastola.com](http://www.elizatxoikastola.com)

**IRUBIDE JATETXEA**  
Zure jatetxea, Epelen

Epele auzoa, 7  
943 552 480 - 667 208 702

**Bertakoaren aldeko apustua egiten dugu** (Km 0)

// BERTAKO BEHI TXULETA ERE ESKAINIKO DUGU AURTEN  
// SAGARDO EKOLOGIKOA

**IPARRAGIRRE**  
TOLARE SAGARDOATEGIA

Asteartetik larunbatera gauzez Ostiraletik igandera eguerdiz ere bai

Osifraga auzoa, 10 Hernani  
[www.iparragirre.com](http://www.iparragirre.com) 943 55 03 28 // 943 33 73 70